

2021.eko ekainaren 22a

# BESTEN ESPERIENTZIATIK IKASI

ESAN EZ, PREBENTZIORAKO EGITASMOA ESPERIENTZIA PERTSONALEAN OINARRITURIK

*“Dena bizkorregi egin nahi izan nuen”*



## BIDESARI

*“Garai hartan, ez nuen senide eta lagunek esaten zidatena entzun nahi, dena bizkorregi egin nahi izan nuen”.* Gazteek, gaur egun, bizkor eta berehala egundoko informazio pila jasotzen duten, berehalakotasuna eta presak nagusi diren garaian, garrantzitsua da ‘Esan Ez’ egitasmoan parte hartzen duen pertsona honen gogoeta. Hogeita lau urte dituen Iñakik **aldaketa nabarmena** bizi izan du eta bere esperientzia kontatzen die ikastetxeetako gazteei, entzule guztiei zuzen-zuzenean iristen zaien lekukotasun gertuko eta berezia emanez. Beren kaputxen atzean ezkutaturik gustuko ez dutena ikusi eta entzun nahi ez dutenengana ere iristen da.

Hain zuen ere, horregatik dirau bizirik urtez urte Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailetik sustatzen den ‘Esan Ez’ egitasmoak. **Benetako esperientziak kontatzen ditu hizkera bakunaz, kartzelan dauden pertsonen zuzenean gazteei helarazten dizkien bizipenen bidez.**

20-21 ezohiko kurtsoan, bost lagunek eman diete beren lekukotasuna Bizkaiko hainbat ikastetxetako 250 ikasle baino gehiagori. Saioetan, **hausnarketa eragiten da gazteen artean drogen kontsumoaren arriskuari buruz eta sentiberatasuna pizten da beraien artean kartzelan dauden pertsonen aurrean**, pelikuletan ikusarazten zaigun ideia, hau da *“itxura txarreko tipoak”* baizik ez direla, deseginez.

Kurtso hau amaitu da eta duela lau urte, Carmen Gandarias Fundazioarekin eta Kartzela Pastoralzarekin batera, egitasmoa martxen jartzean genuen helburuari eusten diogu: geure esperientzia pertsonala kontatu, nor bere aletxoak jartzeko gazte hauen gogoeta eta ikaskuntzetan, *“guk bizi izan duguna bizi ez dezaten, oso gogorra da-eta mundu honetatik ateratzea”.*